

**2025.URTEKO GAZTA TXAPELDUNA (XVII. edizioa)****KALEGOEN PLAZA****2025-12-27 (LARUNBATA)****1. ATALA**

2025. urtean antolatutako "Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzailleak" araututako ardi-gazta lehiaketa hauetakoren batean irabazi dutenek parte hartu ahal izango dute:

<b>LEHIAKETAK</b>	<b>TXAPELDUNAK</b>
Deba, 2025-01-04 Ordizia, 2025-09-10	La Leze (Ilarduia)
Bilbo, 2025-06-08 Elgoibar, 2025-08-30 Uharte-Arakil, 2025-08-31 EHT, 2025-10-12	SC Kortaria (Lekaroz)
Azpeitia, 2025-07-25	Zabaleta (Munain)
Araia, 2025-08-15	Jesus Mari Ansola-Mausitxa (Elgoibar)
Plentzia, 2025-08-17	Ander Barandiaran (Idiazabal)
Legazpi, 2025-09-07	Joseba Insausti (Ordizia)
Agurain, 2025-10-07	SAT Olano (Ilarduia)
Gernika, 2025-10-27	Ricardo Remiro (Eulate)
Eibar, 2025-11-30	Bostibaieta (Iruri)

**2. ATALA**

Gazta **Elgoibarko Udaletxean** aurkeztu beharko da, abenduaren 27an, goizeko hamaika eta erdiak baino lehen. Ordu hori igaroz gero, ez da lehiaketan parte hartzeko aukerarik izango.

**3. ATALA**

Ez da onartuko gazta zatirik, ezta kilo bat baino gutxiagoko gaztarik ere.

**4. ATALA**

Partehartzaileek urte barruan egindako **gazta bat** aurkeztu beharko dute lehiaketarako. Gazta bakoitza 40 euro ordainduko da.

**5. ATALA: Sari bakarra: 1.500 EURO, TXAPELA ETA GARAIKURRA.**

**6. ATALA**

Gaztarekin batera, artzainak, osasun erregistroa eta kaseinaren plaka aurkeztu beharko ditu.

**AZKEN OHARRA**

Antolatzaileek, aurrez aditzera eman gabe, araudi honetako edozein baldintza aldatzeko eskubidea izango dute.

Epaimahaiaren eta antolatzaileen erabakiak apelaezinak izango dira.

**Antolatzaileak: KALAMUA ELKARTEA eta ELGOIBARKO UDALA**

**Kultura Saila: Tel: 943-742158 [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus)**

# “GABON ZAHARRETAKO FERIA”- ELGOIBARKO UDALA NORBERAK LANDATUTAKO PRODUKTUEN SARIKETA-ERAKUSKETAREN ARAUAK. 2025eko ABENDUAREN 27an - LARUNBATA

## **Partaideak:**

Nekazaritza Ustiapen Txartela aurkezten duten baserritarrak, tokia baldin badago.

## **Sarituko diren salgaiak:**

Norberak landatutako frutak eta barazkiak. Gutxienez, lau barietate aurkeztuko dira.

## **Erakusketa:**

Kalegoen plazan, horretarako propio jarritako saltokietan.

## **Orduak:**

Goizeko 7:00etan hasiko dira salgaiak jartzen, eta 9:00etarako prest egongo dira; ordu horretan pasatuko da eta epaimahaia. 14:30ean postua jaso egin beharko da.

## **Salmenta:**

Epaimahaiaren erabakia jaso ondoren hasiko da salmenta, gutxi gorabehera, 10:30ean.

## **Dietak:**

Lehiaketan parte hartzen duten guztiei 150 euroko dieta emango zaie; baldin eta, gutxienez, lau barietate erakusten badituzte.

Epaimahaiak 250 euroko 9 dieta “berezi” eman ahal izango ditu, barazki eta fruten barietateagatik eta kalitateagatik.

## **Sariak:**

Honako sari hauek emango dira:

	<b>Barazkiak</b>	<b>Frutak</b>
<b>1.</b>	600 €	600 €
<b>2.</b>	500 €	500 €
<b>3.</b>	400 €	400 €

<b>Saltokirik onena</b>	600 €
<b>Benekotasuna eta berrikuntza</b>	600 €
<b>Mendiak hobekien zaintzen dituen Elgoibarko baserria</b>	500 €

Sariak emateko orduan, honako baldintza hauek hartuko dira kontuan: salgaien kalitatea, mota ezberdinetako salgaiak erakutsi eta saltzea, mota bakoitzeko aldaera edo barietate desberdinak erakutsi eta saltzea.

Baserrian bertan ekoiztutako produktuek bakarrik jasoko dute saria. Epaimahaiak saririk ez emateko eskubidea izango du, salgaiak baserrikoak ez direla egiaztatuz gero.

## **Eztia, ogia, txerrikiak...:**

Bereziki prestatutako saltokietan jarriko dira.

Udalak erabakiko du erakusketari bakoitzak zein saltoki izango duen. Epaimahaiak hala baderitzo, sariak eman gabe laga daitezke. Sariaketa-lehiaketan parte hartzeko, baldintza hauek onartu egin beharko dira.

## **Izena emateko epea abenduaren 2an bukatuko da.**

**Kultura Saila: Tel.: 943-74.21.58**  
**e-maila: [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus)**